

DREYER-DARREN ZORIGAITZA

Estibaliz Lizaso

Tolosa, 13 urte

Istorio hau udako arratsalde bero batean hasi zen. Anuska bere gelako leihotik begira zegoen, igaroko zuen oporraldi aspergarrian pentsatzen. Anuska hamazazpi urteko neska gaztea zen, ile gorri eta begi berdeak zituen eta aurpegian irribarre gozoa edukitzen zuen beti. Ikasle amorratua zen eta bere ametsa sendagile jankintsua izatea zen. Erabaki sendo hau bere anaia txikia hil zen egunean hartu zuen, ez baitzuen nahi inork pasatzerik berak igarotako atsekaberik.

Halako batean, norbaitek bere gelako atea jo zuen. Ama zen eta eskuan eskutiz bat zekarren. Anuska amarengana hurbildu eta eskerrak eman ondoren, ohean etzan zen eskutitza irakurtzeko asmotan. Eskutitza bere lehengusu Anerena zen eta nahiz eta eskutitza laburra izan, nahikoa izan zen Anuska erabat pozteko. Anek uda berarekin pasatzera gonbidatu zuen! Korrika amari baimena eskatu zion eta baimena lortutakoan maletak egin zituen, lehen bait lehen iritsi nahi baitzuen bere lehengusua bizi zen herrira.

Ane, Anuska baino dexente zaharragoa zen, baina oso ongi moldatzen ziren, zeren Ane ere sendagile baitzen. Anek sendagile titulua lortutakoan, itsas-ertzeko herriska batean lortu zuen lana herriko mediku bezala. Bakarrik bizi zenez, maiz gonbi-

datzen zuen Anuska bere etxera eta primeran pasatzen zuten sendagile lana elkarren artean eginez. Gainera, Anuskarentzat aukera paregabea izaten zen medikuntza pixka bat ikasteko.

Hiru egun beranduago iritsi zen Anuska Aneren etxera eta maletak desegin ondoren egongelan eseri ziren hitz egiteko:

– Ba al duzu oraingoan ere niretzako lanik

– Bai, badut lan bat zurekin egiteko, baina ez nago ziur zer izan daitekeen.

– Konta iezadazu ba, irrikitan nago eta! –esan zion Anuskak.

– Duela bi hilabete senar-emazte batzuk etorri ziren herrira, Dreyer-darrak. Baso ertzeko etxetxotan bizi dira baina hona iritsi zirenetik, senarra ez da inoiz herrira etorri. Erosketa eta mandatu guztiak Dreyer andereak egiten ditu eta elizara ere igandero joaten da. Dreyer jauna ikusi duten guztiek eroturik dagoela esaten dute, baina nik ez nion garrantzirik eman lehengo astea iritsi zen arte. Lehengo astean Dreyer andereak deitu zidan etxera, bere senarra gaixo zegoela esanez eta ikusterera joateko eskatuz. Ni segituan joan nintzen beraiengana eta senarra auskultatu ondoren, marranta soil bat zuela eta behar zuen sendagaia eman ondoren, Dreyer anderea agurtu eta etxera itzuli nintzen.

– Eta zer da hor misterioitsu ikusten duzuna? –galdetu zion Anuskak etsipenezko keinua eginez.

– Bada oraindik kontatu ez dizudan gauza bat. Dreyer jauna ikusi nuenean, aho zabalik gelditu

nintzen. Sekulako gizona da eta oso gihartsua. Gaua bezain ile eta azal ilunak dauzka eta honek begiak nabarmentzen dizkio. Begiak urdin argiak ditu, baina hain argiak direnez, zuriak dirudite eta begien zurtasuna gehiago nabarmentzen duen begirada galduak edozein beldur dezake. Baina arraroena bere portaera da. Ezezagunen aurrean ume bat dirudi. Hala ere agindupean dauka Dreyer andere gaixoa. Baina nik ikertu nahi dudana ez da horrelako ezer. Dreyer jauna auskultatzen ari nintzela, belarri atzekaldean ebaki sakon batzuen arrastoak ikusi nizkion eta buruan zehar gehiago dauzka. Orduan, begiratu eta nahiz eta ez nagoen ziur, bere portaerarekin zer ikusia dutela iruditu zitzaidan.

– Niri arraro samarra dela iruditzen zait. Baina nola pentsatzen duzu hori ikertzea, gainera, Dreyer jauna ez da zuk nahi duzun guztietan gaitokuko, zuk bere ebakiak azter ditzazun.

– Badakit, nik ere pentsatu dut horretan, baina zorte pixka batekin zerbait bururatuko zait.

Hurrengo egunetan ez zuten arazo horretan pentsatzeko denborarik izan, oso lanpetuta ibili baitziren. Baina arratsalde batean Dreyer anderearekin topatu eta berriro ere nola ikertzen hasi pentsatzen hasi ziren. Pentsatzen aritu ondoren, hau egitea erabaki zuten: Dreyer anderea oso bakkirik ikusten zenez, beraiekin askaltzera gonbidatuko zuten eta bere bizitzaz hitzegitean, zerbait jakitea posible izan zitekeen. Telefonoa hartu eta Dreyerdarren etxera deitu zuten. Dreyer andereak

gustora onartu zuen nesken gonbidapena eta hurrengo egunean atsegin handiz joango zela esan zien.

Iritsi zen arratsaldea eta Anuska eta Anek sekulako askaria prestatu zuten. Segituan iritsi zen Dreyer anderea eta ase arte askaldu zuten. Hizketan aritu ziren eta Dreyer andereak atsegin handiz erantzun zituen neskek egindako galderak, baina mesedez bere izen propioaz deitzeko eskatu zien. Beraz, orduz geroztik Dreyer anderea Susan izan zen. Baina ordubete inguru pasa zenean Susanek honela hitz egin zien:

– Askok eskertzen dizuet ni gonbidatzea eta espero dut laster nire etxean bisitan izango zaituztedala, baina etxera itzuli behar dut, Jack, nire senarra, bakarrik gelditu baita.

– Oraindik gaixo al dago, ba? – galdetu zion Anek.

– Ez -esan zuen Susanek masailak gorrituz –baina ezin dut denbora askotan bakarrik utzi. Beste batean kontutako dizuet arrazoia. Beno, laster arte.

Arratsalde hartan ez zuten ezer askorik lortu, baina Susanen konfidantza bereganatzea lortu zuten eta hori ez zen gutxi. Oraingoz honako hau besterik ez zekiten: Dreyerdarrak kanpotarrak ziren eta sei urte zeramatzaten Euskal Herrian bizitzen eta Jack, hau da, Dreyer jauna arrantzalea zenez, kostaldean bizi nahi zuen eta etxe hura salgai zegoela jakitean etorri egin ziren. Baina Susanek gezurra esan ziela pentsatzen zuten nes-

kek. Edonork baitzekien Jack ez zela egun bakar batean itsasoratu. Zalantza hau argitzearren neskek hurrengo astean Susani bisita bat egin zien. Askaldu ondoren berriro ere hitzegiten hasi ziren eta gaia azaltzean Susani galdetu zioten:

– Ez dut Jack arratsalde osoan ikusi, arrantzara joan al da?

– Ez, badakizue hona iritsi ginenetik Jack ez dela behin ere itsasoratu, baina ez pentsa gezurretan aritu naizenik. Egia da Jack arrantzalea dela, edo hobeto, esanda, zela.– lehengusinak adi-adi jarri ziren, bazekiten eta. Susanek orduan kontatuko ziela jakin nahi zutena– Jack oso urrutira joaten zen arrantzara eta aste askotan ez zen itzultzen... –hasi zen esaten Susan, baina orduan atea jo zuten eta atea zabaltzean Jack azaldu zen busti-busti egin da. Anuska erabat izuturik gelditu zen. Entzunak zituen Aneren eta herriko jende gehiagoren Jack-i buruzko deskribapenak, baina inoiz ez zuen imajinatu horren beldurgarria zenik. Susan altxatu eta Jack-engana gerturatu zen. Jack-ek euria ari zuela esan zion eta Susanek zera esan zigun:

– Barkatu, beste batean jarraitu beharko dugu.

– Bai, geuk ere joan egin beharko genuke.– hori esan eta Anuska eta Ane etxeruntz abiatu ziren, baina amorrua sentitzen zuten, jakin nahi zutenaz hain gertu egon eta dena momentu batean galdu baitzuten, gainera, oso zaila izango baitzen berriro horrelako aukera bat izatea.

Hurrengo egunetan aukera gehiago izan zituzten, baina beti zerbaitek oztopatzen zituen eta gai-

nera, Susanek ez ziela kontatu nahi iruditzen zitzaien. Egunak joan eta egunak etorri, ez zutela ezer gehiago lortzen ikustean, etsipenak jota ahaztu egin zuten.

Baina igande batean elizatik ateratakoan Susan ikusi zuten eta bere aurpegi tristea ikusi ondoren, biek ikertzen jarraitzeko gogoia izan zuten. Zeuzkaten ideietan pentsatzen aritu ondoren honako hau egitea pentsatu zuten: arratsaldean erosketak egin behar zituztenez, hirira joan eta eritetxeko artxiboan Jack Dreyeren historiala begiratu zuten, horrela, istripu edo beste zerbaiten arrazoiak jakingo zituzten.

Iritsi zen arratsaldea eta neskak hirirantz abiatu ziren. Erosketa guztiak egin ondoren eritetxera joan ziren eta artxibora sartzeko baimena lortu zuten. Ordubete bila eta bila aritu ziren eta azkenik aurkitu zuten Jacken historiala. Segituan joan ziren irakurtzera eta aho zabalik gelitu ziren jaritzen zuena ikusita. Historialak zioenez, Jack bi hilabetez koman egon ondoren, bizirik irtetea lortu zuen. Eta lehengusinak oraindik gehiago harritu zituen beste datu bat ere bazetorren: istripua itsazontzi batean gertatu zen! Beraz, Susanek ez zien gezurrik esan eta litekeena zen Jack arrantzale izatea. Horrez gain, hasierakoa ez zen beste mediku bat idazten hasia zegoen, baina lehen hitzak besterik ez zituen idatzi eta ezin zen jakin norena zen. Ane eta Anuskak ez zien garrantzirik eman honi eta nahikoa bazekitenez, etxera itzuli ziren.

Gauean hitzegiten aritu ziren eta jakindakoa

Susani kontatzea pentsatu zuten. Ez berak ez zekielako, beraiek bazekitela jakin zezan baizik. Beraz, telefonoa hartu eta Susani deitu zien hurrego egunean askaltzera gonbidatzeko asmoz. Telefonoa eskegitakoan, Anuska Anerengana zuzendu eta plana aldatu zela esan zion. Susanek Jack oso gaixo zegoela eta arratsalde hartan eriauto batean hiriko eritetxera eraman zutela esan zion. Bi neskak oso larriturik gelditu ziren, baina ezin zutenez ezer egin, etxean gelditu ziren.

– Ezin dut sinestu Jack eraman dutela eta gu ez garela konturatu ere egin bertan egonda.

– Larrialdien atea artxibotik oso urruti dago eta hain interesaturik geunden historialaren bila, ez ginela larrialdietako txirrinaz ohartu ere egingo.

Orduantxe bertan atea jo zuten eta Ane irekitzera altxatu zen. Susan zen, arnas estuka zetorren, pausu azkarrez joan baitzen Aneren etxera. Egongelan eseri eta pixka bat lasaitu zenean galde-tu zion Anuskak:

– Nolatan etorri zara Susan?

– Ezin nintzen bakarrik egon, eta gainera, gauza bat esan behar dizuet. Badakit askotan hasi naizela kontatzen, baina inoiz ez naiz kontatzera iritsi. Jack arrantzalea zen eta bidaia luzeak egiten zituen urrutira. Behin, bidaia horietako batean, ekaitzak harrapatu zituen eta Tripulazioko jende gehiena hil egin zen. Zorionez, Jack bizirik zegoen, baina tximista batek mastila jo zuen zeharka eta zati bat moztu zion. Egur zati hori Jacken gainera erori zen eta buruan sekulako kolpea eman zion. Horrez

gain, kolpe eta ebaki larriak jasan zituen eta denek hiltzat eman zuten. Baina Jack oso sendoa da eta bi hilabete luze koman igaro ondoren, bizirik irtetea lortu zuen. Baina inoiz ez da lehengoa izatera itzuli. Lehen oso zoriontsuak ginen eta nahiz eta denbora luzeak kanpoan igaro, elkarrekin geundenean herriko bikoterik zoriontsuena ginen. Orain, berriz, Jackek memoria erabat galdu du eta ume txiki baten modura portatzen da. Ez da bere buruaren jabe eta eguna aginduak ematen pasatzen du. Baina nik oraindik maite dut eta ez dut itxaropenik galdu nahi. Edozer emango nuke lehengora itzulzeagatik...

Susanen begietan bere sentimendu guztiak nabari ziren. Bere bizitzak jasandako aldaketa gogorrek ekarri zizkion atsekabeak, bere itxaropen urria eta, batez ere, Jackenganako maitasun gozo eta iraunkorra. –Anuskak ezin izan zuen gehiago eta esan zion Susani:

– Susan, ez gaizki hartu, baina Ane eta biok Jackek zer zuen arduratuta, bere historiala irakurri dugu eta nahiz eta ez oso ongi jakin, bagenekien itsasoan istripu bat jasan zuela.– Anek begirada zorrotza zuzendu zion Anuskari eta behin zerbait esaten hasita dena esatea hobe izaten denez, esan zion Susani:

– Anuska etorri baino lehen, Jack gaixotu eta auskultatzeko eskatu zenidanean, ebakiak ikusi nizkion eta bere portaerarekin lotu nituen. Orduan, gauza bitxia zenez eta bai Anuskari eta bai niri medikuntza asko gustatzen zitzaigunez, berari

deitu eta bion artean ikertzea pentsatu nuen. Zure aldetik ezer asko lortzen ez genuela ikusita, hiriko erietxera jo genuen zerbait gehiagoren bila. Baina lasai zaitetz, Jack nire gaixoa denez, eritetxetik deitu didate zer duen esateko eta nahiz eta hasieran larriagoa eman, atake bat besterik ez dela izan esan didate eta hain ongi dagoenez, ez dela behar inork gaua pasatzea.

– Niri ere esan didate hori, baina ez dut medikuntzaz ezer ulertzen eta bakarrik egotea baino nahiago nuen hona etorri.

– Noski baietz, ongi egin duzu etortzean eta bihar bertan erietxera joango gara zer 'moduz dagoen ikustera. Orain geldi zaitetz hemen lo egingen eta bihar goizean goiz jaikiko gara.

– Konforme, mila esker. Ondo lo egin.

Horrela agurtu ziren hirurak eta esan bezala, hurrego goizean goiz erietxera abiatu ziren Aneren kotxean. Bertara iristean, Susan zuzenean bere senarraren ondora joan zen eta egun guztian ez zen bere ondotik aldendu. Ane eta Auska, berriz, Jacken kasuaz arduratu ziren. Sendagile guztiekin hitzegin zuten. Ahal zen informazio guztia bildutakoan bi neskek Jack auskultatzeko baimena lortu zuten. Auskultatu eta proba batzuk egin ondoren, ondorio itxaropentsu batera iritsi ziren. Udan zehar asmatu berria zen ebaketa berri bat aztertzen aritu ziren eta erabilitako kasuak eta izandako emaitzak kontuan hartuta, harriskatzea merezi zuela iruditu zitzaienten, Dreyerdarren zoriontasuna jokoan baitzegoen. Baina, bestalde, ebaketa

hura oso arriskutsua zen eta oso jende gutxiri egin zitzaion ordurarte. Beraz, Susani ezer esan aurretik, beste sendagile batekin kontsultatzea izango zela onena erabaki zuten. Segituan orduan zebilkien sendagilearengana joan ziren eta aho zabalik utzi zituen haren erantzunak.

– Zuek Martin zaharra bezain eroturik zaudete. Nola ausartzen zarete gizon horren bizia arriskuan jartzen bizpahiru aldiz egin den ebaketa batengatik?

– Nor da Martin Zaharra? –galdetu zuen Anek sendagile hark esandako gainontzekoari kasurik egin gabe.

– Martin Zaharra eritetxe honetan lanean aritu zen sendagile zahar bat zen. Berak, zuek bezalaxe, ebaketa hori bere memoria berreskuratzeko bide zela pentsatzen zuen. Jack erietxetik irten eta bi egunera bihotzekoak eman zion eta sendatu zenezan lana utzi zuen, baina ez nahi zuelako, ez. Berak nahi zuen arte gelditu izan balitz, oraindik hemen ibiliko zen, baina erretiroa hartzeko adina jada pasata zuen eta nahiz eta ordurarte lanean jarraitzen utzi genion, bihotzekoaren ondoren erretiratu beharra izan zuen.

– Eta non bizi da orain? –galdetu zion Anek.

– Ez dakit, baina idazkaria Martinen oso laguna zen eta oraindik ere elkar ikusten jarraitzen dute. Agian berak lagunduko dizue. Baina, zer dela eta Martinenganako interes berezi hori?

– Zerbait egiten badugu jakingo duzu. –Hau esan eta Ane idazkaritzara abiatu zen, ezer ulertzen ez zuen Anuska atzetik zuela. Idazkariak atsegin han-

diz esan zien Martinen helbidea eta nahiko urrun zegoenez, Anek hurrengo egunerako utzi zuen hori eta Susani deitu ondoren, hirurak herrixkara itzuli ziren pozez beterik. Bat, bere senarra ikusi eta askoz ere hobeto zegoela ikusi zuelako; bestea, buruan giraka ideia itxaropentsu bat zebilkielako eta hirugarrena, nahiz eta zer zen ez jakin, bazekielako interesgarria zen zerbait gertatzear zegoela.

Iritsi ziren herrixkara eta Susan askoz ere lasaia-go zegoenez, bere etxean gelditu zen. Baina bi neskak ez ziren segituan oheratu. Etxera iritsi eta afaldu ondoren egongelan eseri ziren eta Anuskak hainbeste itxaron zuen azalpena entzun zuen:

– Mendizabal sendagileak Martin Zaharraz hitze-
gin zidanean guri arrazoi emango zigula pentsatu
nuen eta berarekin hitzegitea gustatuko litzaidake.
Horrela, beste pertsona baten onespena izango
dugu eta Jacken sendagilea neu naizenez, Susani
gure asmoak azalduko dizkiogu eta baietz esaten
badu, ebakuntza egitea besterik ez zaigu gelditzen,
eta gaur bertan ikusi dugu, Sorondo sendagileak
egina duela ebaketa hori.

– Sekulako ideia da hori. Goazen ohera, horrela
lehen orduan joan gaitezke Martin Zahararren
etxera.

Esan bezala, hurrengo goizean Martin Zahar-
raren etxera joan ziren eta atsegin handiz hartu
zituen bere etxean. Martin Zaharra deitzen zioten
gizona, hirurogeita hamaren urte inguruko gizon
alai bat zen. Beti irribarretsu zebilen eta masailak
udaberriko marrubiak bezain gorriak zituen. Ilea

erabat zurituta zeukan adinagatik, bibotea bezala eta begiak zeru oskarbia bezain urdinak zeuzkan. Beraien bisitaren arrazoia esplikatu ziotenean, Martin Zaharrari begiak argitu zitzaizkion. Bera horrenbeste saiaturako kasua modu horretan bukatzeak min eman zion, konpon zitekeela jakinik gainera! Eta oso poztu zen berriro ere norbait kasu hartaz arduratzen zela jakitean. Kontatu zienez, Jacken historialean aukera hura idazten ari zen bitartean eman omen zion bihotzekoak eta inork bukatu ez bazuen, oraindik ere bukatu gabe egongo zen. Orduan gogoratu ziren nola Jacken historiala irakurri zutenean, norbait idazten hasitako hitzak zeuden. Martinek segituan jantzi zuen bere anorak erabilia eta eritetxera joan ziren. Bertan Jack berriro aztetu zuten ziurrago egoteko eta egindako proben emaitzak ikusirik, Susani beraien asmoa azaldu zien. Susan nahasirik gelditu zen, arraro egiten baitzitzaion hainbeste urteren ondoren berriro ere bere senarra lehengora itzul zitekeela pentsatzea. Denbora eskatu zien pentsatzeko, erabaki zaila baitzen ebaketa hartan Jack hil egin zitekeela jakinda.

Arratsalderarte pentsatzen aritu zen eta azkenik bere erabakiaren berri eman zien. Ebaketa egitea erabaki zuen, lehengora itzultzeko edozer egingo baitzuen. Anuska, Ane eta Martin Zaharrak pozez beterik entzun zuten Susanen erabakia eta lehen bait lehen paperak betetzen hasi ziren. Ebaketa hurrengo astean egingo zitzaion eta ordurarte erietxean geldituko zen Dreyer jauna.

Lehengusinak herrixkara itzuli ziren eta beraien lanean jarraitu zuten. Alde batetik pozik zeuden, irtenbidea bilatu baitzioten beraiek hainbeste saiatutako kasuari, baina, bestalde, ebaketa gaizki irten zitekeen eta Jack hiltzeko harriskua zegoen. Ez ziren lasai geldituko ebaketa bukatu eta ongi atera zela ikusi arte, gainera, posible zen ebaketak Jacki memoria ez itzultzea.

Iritsi zen ebaketa eguna eta neskak erietxera joan ziren. Anek kirofanoan egoteko baimena zuen eta Anuskak, Susanekin batera, kanpoan gelditu behar zuen. Hiru orduko ebaketa izan zen eta kirofanotik jendea irteten hasi zenerako Anuska eta Susanek ezin zuten gehiago. Baina, azkenik, Ane atera zen eta bere aurpegiko irribarrea ikusi zutenean, Susan eta Ane negarrez hasi ziren zorientasunez, jasandako tentsio ikaragarria izan baitzen. Hurrengo egunetan, Susan ez zen bere senarraren ondotik aldendu eta sekulako aurrerapenak egin zituen. Inongo arazorik gabe Jackek memoria berreskuratu ahal izan zuen eta bere emaztearen alboan munduko gizonik zorientatsuen sentitzen zen.

Erabat sendatu zenean, etxera itzuli ziren eta gauean Aneren etxean afari zoragarria zuten zain. Etxera sartzean, neskei zirrara egin zien Jacken aurpegiak. Ez zen lehen bezain beldurgarria, baina bere begiak lehen bezain arraroak izaten jarraitzen zuten. Baina orain askoz ere ahots sendoagoz hitzegiten zuen eta honela esan zien Anuska eta Aneri:

– Badakit oraindik ez zaituztedala ezagutzen, baina nire emazteak gugatik egin zenuten guztia kontatu dit eta bene-benetan eskertzen dizuet Susan eta bioi zorientasuna itzultzea. –Hau esan eta afaltzera joan ziren. Gau zoragarria igaro zuten eta ez ziren berandu arte oheratu.

Egun batzuk beranduago, pozez beteriko tren bat itsas ertzeko herrixka hartatik aldendu zen. Bertan Anuska zihoan, aldizkaria irakurriaz. Aldizkaritik begiak altxa eta pentsatzen hasi zen:

“Uda hau zoragarria izan da; lan asko egin dut, medikuntza pila bat ikasi dut eta ikerketa txiki baten ondoren, bikote bati zorientasuna itzultzen lagundu diot. Gainera, ikastolan azken urtea besterik ez zait geratzen eta ondoren, hainbeste itxarondako karrera egiten has naiteke.”

Leihotik begiratu eta bere herriko lehen etxeak ikusi zituen. Pena eman zion Aneren etxetik joateak, baina bere gurasoak ikusteko gogoa ere bazuen. Trena gelditu egin zen. Azkenik etxean zegoen!